

Isabel Pizarro, Psikologia Fakultatea. UPV/EHU

“Emakume ekintzailearen erronka”

2008ko irailaren 2a

“EMAKUME EKINTZAILEAREN ERREALITATEARI BURUZKO IKERKETA TEORIKOAK EGITEA SUSTATZEA BEHARREZKOA DA”

“Emakumeak enpresaren erronkaren aurrean: ideiatik proiektura, proiektutik errealitatera” ikastaroan, EHUko Psikologia Fakultateko Isabel Pizarrok azaldu zuenez, emakume ekintzaileen kolektiboa talde heterogeneoa eta era askotarikoa da, oso desberdinak diren parametroen arabekoak baitira kasuak. Bere ustez, Espainian kolektibo horren inguruan egiten ari diren lanek ez dute oinarri teoriko sendorik, azkenaldian nahikoa aurreratu bada ere, “gaiari buruzko ikerketa gutxi” egiten jarraitzen baita.

Isabel Pizarrok adierazi zuenez, gizon eta emakumeek jarduera ekintzaileari antzeko arrazoiengatik ekiten diote, nahiz eta frogatua egon, ikerketek hala diotelako, emakumea gazteago hasten dela ekiten, gizonak baino esperientzia falta handiagoa erakusten duela bere jarduera hasterakoan eta, gainera, bere proiekturako finantzazio eza nabarmenago pairatzen duela; azken elementu hori, bestalde, ekintzaile guztien adierazle dirudi.

“Ez dago finantza-sistemak emakume ekintzailea genero arrazoiengatik diskriminatzen duela frogatzen duen daturik”

Isabel Pizarrok, emakume ekintzaileek enpresa-kudeaketan beren gizonezko kideek baino trebakuntza falta handiagoa dutela adierazi zuen eta, orokorrean, emakumezkoek denbora gehiago behar dutela beren proiektua gauzatu eta martxan jartzeko. Gainera, adituaren ustetan, emakumeek finantza-zerbitzuetara eta giza eta gizarte-ondasunetara sarbidea zailagoa dute, nahiz eta, bere ustez, “ez dagoen finantza-sistemak emakumea genero arrazoiengatik diskriminatzen duela frogatzen duen daturik”.

Beste hainbat ezaugarri ere identifikatu zituen Isabel Pizarrok, eta adierazi zuenez, ezaugarri horiek emakume ekintzaileen arrakastara lotzen dira: nagusiki, enpresak sortzen dituzte negozio-aukera onak antzematen dituztenean; porrotak eragiten duen beldurrak badirudi emakumeei gehiago eragiten dietela gizonezkoei baino; ezartzen dituzten estrategiek produktuaren kalitateari ematen diote garrantzia; gizonezko kideek

baino kezka gutxiago eragiten dizkiete finantza-ordainsariek, arrakastaren gizarte-balioei eta neurri kualitatiboiei lehentasuna emanez.

Egoera horren aurrean, Isabel Pizarrok, bere ustetan, oinarrizko ekintza-ildoak izan beharko luketen batzuk azpimarratu zituen: emakume ekintzaileari buruzko ikerketa teorikoak egitea sustatzea; ekintzaitzari ekin nahi dioten eta immigranteak diren edo minusbalotasunen bat duten emakumeak era eraginkorragoan artatzea; ekintzaitzari buruzko sensibilizazio-programak martxan jartzea hezkuntza-alorretan; eta, azkenik, ekintzaitza-programen ondorioei buruzko ebaluazioak egitea, baina genero ikuspegiarekin.